



Hamaika Garak eta BERRIAk antolatutako solasaldia, atzo. JAGOBA MANTEROLA/FOKU

Egungo hezkuntza sistemaren gabeziez eta sistema propio eta burujabearen beharraz mintzatu dira Hamaika Gara egitasmoak eta BERRIAk antolatutako solasaldian. Ideia bat argi dute: helburua lortzeko, Euskal Herriak independentzia behar du.

Independentzia giltza hezkuntza propiorako

Frañ Urdal eta Lete

Gure hezkuntza sistema ez da batere burujabea». Pedro Macho Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ikuskariaren hitzak dira, atzo Hezkuntza sistema propio eta burujabe baterantz solasaldian esandakoak. Hamaika Gara eta BERRIAk antolatuta, egungo hezkuntzaren gabeziak mahai gainean jarri zituzten Machok, Ane Ablanedo irakaslea eta heziketa librean adituak eta Nora Salbotx Amairuko eskolako zuzendari eta Hik Hasiko kideak, Ainhoa Latatu Gure Esku-ko zuzendaritzako kideak gidatuta. Argi dute euskal hezkuntza sistema propio bat izateko ezin dela Espainiaren nahiz Frantziaren zain egon; alegia, independentzia beharrezkoa dela. Hala azaldu du Ablanedok: «Gure hezkuntza nahi duena jar dadila herri honen independentziaren bidean, ez baita bide zuzenagorik». Euskaraz



Frantses sistemak frantsestu egiten du, eta espainolak espainiaritu egiten du, euskaraz egiten hasi ere»

Ane Ablanedo
Irakaslea eta heziketa librean aditua

«Dizaineu bat egin diguete, eta gu, herri bezala, bagara nor horri erantzun intsumisoak [...] artikulatzeko»

Nora Salbotx
Amairuko eskolako zuzendaria

«Nik beti esaten dut: euskal hezkuntza sistema burujabea bai, baina ez burujabea»

Pedro Macho
Hezkuntza Saileko ikuskaria

salbatzeko beste modurik ere ez du ikusten: «Txalotu egiten dugu frantses estatuak guri ematea gure hizkuntzari buruzko baimentxo, lotsagarria denean».

Egungo sistemaren gabeziak azaleratuz ekin diote: «Frantses sistemak frantsestu egiten du, eta espainolak espainiaritu egiten du, euskaraz egiten badu ere», ohar-tarazi du Ablanedok. Machok erantzun dio euskalduntzen duela, baina Ablanedok ez du guztiz bat egin: «Euskaldundu egiten dugu hizkuntzaren zentzuan, baina ez dugu gaitasunik komunitate eta herri bezala haurrei transmititu beharko genizkekeen klabe soziopolitikoak transmititzeko». Kritiko agertu da Salbotx ere: «Dizaineu bat egin dugu, eta gu, herri bezala, bagara nor horri erantzun intsumisoak, desobedienteak ere artikulatzeko».

Nolakoa izan behar luke?

Aletu dituzte euskal hezkuntza sistema propio horrek izan beharreko ezaugarriak ere. «Hezkun-

tza neutralik ez dago», azpimarratu du Machok. Eta Salbotxek argi definitu du bere ustez hezkuntza burujabeak nolakoa izan behar lukeen: «Izan beharko du euskalduna, feminista, neoliberalismoaren atzaparrez gaindikoa; justizia soziala, eskubideak eta pribilegioak zer diren ondo erakusten duen hezkuntza sistema bat beharko genukeela uste dut, eta, gainera, dimentsio publiko eta komunitarioa uzartzen dakiena». Eta hau erantsi du: «Politizatu behar dugu hezkuntza erroetaraino».

Esaldi batean egin du laburpena Machok: «Nik beti esaten dut: euskal hezkuntza sistema burujabea bai, baina ez burujabea». Eta bata bestearen atzetik bota ditu haren ustean izan beharreko ezaugarriak: heteropatriarkatuak tokirik izango ez duena, ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten ikastetxeak onartuko ez dituen, segregaziorik egongo ez dena... Azken ideian sakondu du: «Niretzat ikastetxeen sare bakar bat egon beharko luke. Sare bat baino gehiago egotea berez segregatzailea da: bereizketan oinarritzen da, eta bereizkeria sustatzen du, sortzen du, areagotzen du». Beste ikuspuntu bat eskaini dio Ablanedok. Independentzia izanda, sare bakarra irudikatzen du berak ere, baina sare hitza entzundakoan «susmoa» hartzen du ez ote diren ari orain dagoenari buruz, eta hor bat hobestearren inguruan. «Nik hemen denak ikusten ditut espainolak eta han frantsesak, euskaldunik ez dut inon ikusten».



Aurkezpena. OSKAR MARTINEZ/DESA/FOKU

EHUren udako ikastaroetan, 180 jardueratik gora

BILBO• EHU Euskal Herriko Unibertsitateak 180 jarduera baino gehiago prestatu ditu udako ikastaroetarako. Bi modalitateetan emango dute programazioa: modu presentzialean nahiz Internet bidez. Dagoeneko zabalik dago matrikulazioa.

Haize neurgailuen «sabotajeak» salatu dituzte

GASTEIZ• Aixerderrek, Iberdrolak eta Energiaren Euskal Erakundeak sortutako sozietateak, Ertzaintzan salatu du «eraitsi» egin dizkietela Arabako Arkamo mendian haizea neurtzeko jarritako bi dorre. Azpimarratu dute, lazko udatik haizea ikertzeko instalazioetan bost «sabotaje» jasan dituzte.

Mobilizazioak egingo dituzte, Aroztegia geratzeko

LEKAROZ• Aroztegi proiektua –Lekaroz herrian (Baztan, Nafarroa) 225 etxe, hotel bat eta golf zelai egitea– geldiarazteko mobilizazioak iragarri dituzte: bihar Lekarozko plazan batuko dira, kanpaldia egiteko; etzi elkarretaratzea egingo dute plaza berean; eta Maiatzaren 15ean manifestazioa izango dute Elizondon.

Udalak justizia eskatu du hildako oiondarrarentzat

OION• Oiongo Udalak (Araba) herriko bizilagun Issam Haddouren «krimena» arbuatu du, baita familiarentzat justizia eskatu ere. Haddou duela astebete aurkitu zuten hilda Logroñon (Errioxa, Espainia). Poliziaren arabera, «ausaz» aukeratu zuten biktima, eta «jipoi izugarria» jasan zuen. Sei atxilotu daude.